



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO MAIATZAREN 25EAN
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/05/11.

Batzarkideek 2021eko maiatzaren 11ko akta aho batez onartu dute.

2.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2021-0049

Ikusirik


Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsu irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2020-2021 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei beka emateko.

Eta kontuan harturik

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
3. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO 2020/01/30)
4. Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2021eko eranskina (GAO 2021/03/23)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

Lehenengoa: Euskara ikasleentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honek erantsita dituenak.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2021 (A 818/2021)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2021eko ekainaren 28tik uztailaren 19ra bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

3.- BEHAR EKONOMIKO BEREZIAK DITUZTEN USURBILDARREI EUSKARA IKASTEKO MATRIKULAREN DIRU-KOSTUA AURRERATZEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2021-0072

Ikusirik

Usurbilgo Udalari garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrek. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak euskara ikasteko behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei dirulaguntzak aurreratzeko oinarriak argitaratzea aproposa ikusten du.


Eta kontuan harturik

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
3. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO 2020/01/30)
4. Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2021eko eranskina (GAO 2021/03/23)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Behar ekonomiko bereziak dituzten usurbildarrei euskara ikasteko matrikularen diru-kostua aurreratzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.



Usurbilgo Udala

Bigarrena: Dirulaguntzak partida honetatik bideratzea baimentzea: 1.4200.480.335.00.01 2021 (A 818/2021)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik, 2022ko uztailaren 8ra bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

4.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk: 01/2021-0065

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2020-2021 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat dirulaguntzak bideratzeko dirulaguntza oinarriak prestatu ditu.

Eta kontuan harturik

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
3. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 2020/01/30)
4. Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2021eko eranskina (GAO 2021/03/23)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

Lehenengoa: Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honek erantsita dituenak.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1 4400 481 326 00 01 2021 (A 817/2021)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2021eko ekainaren 28tik uztailaren 9ra bitartean (biak barne).

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariordeak, ziurtatuz.